## Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as… Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

# Pena de muerte

## Ficha técnica

TITULO ORIGINAL: Dead Man Walking.

AÑO: 1995.

DURACIÓN: 120 min.

PAÍS: USA.

DIRECCIÓN: Tim Robbins.

REPARTO: Susan Sarandon, Sean Penn, Robert Prosky, Margo Martindale, Celia Weston, Raymond J. Barry, R. Lee Ermey, Scott Wilson, Jack Black.

PRODUCCIÓN: Polygram Filmed Entertainment.

## Sinopsis

Helen Prejean es una monja compasiva de Nueva Orleans que actúa como consejera espiritual de Mathew Poncelet, un violento asesino que espera el día de su ejecución en el corredor de la muerte, y cuya misión principal es ayudar a las personas como Mathew a encontrar su salvación. Aunque a veces indagar demasiado puede llevarte a encontrar el lado más oscuro y malvado del hombre, la hermana Helen piensa que toda persona tiene su lado bueno. Ahora su principal tarea será conseguir el tiempo suficiente y retrasar la ejecución para salvar a Mathew y demostrar a todos que nadie tiene por qué ser ejecutado por muy atroz que haya sido su pasado.

## Temática

Ética de la dignidad humana, conflicto con uno/a mismo/a y esperanza

**Ética de la dignidad humana**. La película permite entender el valor supremo de la dignidad humana frente a cualquier justificación de la violencia. La historia muestra cómo se puede distinguir entre un hecho terrible e injusto y su autor. Ante el hecho crítica y puesta en marcha de las medidas necesarias; ante el autor, respeto.

**Conflicto con uno/a mismo/a**. La historia describe las dudas que genera defender lo que se considera correcto cuando colisiona con la sensibilidad general.

**Esperanza**. Vemos en la película las distintas formas en que los protagonistas perciben la esperanza: esperanza de cambio, esperanza de solución de problemas, esperanza de justicia...

## Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película…

**…hacia adentro.** Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**…hacia fuera.** Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**…no solo con la cabeza, también con el corazón.** Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

**…y después de algún tiempo repensar.** Estar atentos/as al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

## Algunas preguntas…

**…antes de la película**

·Sobre la venganza: ¿Libera, tranquiliza vengarse? ¿Ayuda a superar una pérdida?
·Sobre la vida: ¿Cómo se puede vivir tras sufrir la pérdida de un ser querido? ¿En qué se puede apoyar uno para superar una pérdida?
·Sobre la culpa: ¿Cómo afrontamos nuestra participación en un hecho injusto? ¿Huimos? ¿Nos responsabilizamos, lo afrontamos? ¿Nos arrepentimos?

**…después de la película**

·¿Cómo afrontan cada una de las familias de los chicos asesinados por Mathew Poncelet su pérdida? ¿Cómo llevan su vida después de la pérdida?
·¿Qué actitud tiene a lo largo de la historia Helen con Mathew? ¿Qué caracteriza esta actitud? ¿Qué posibilita?
·¿Por qué le cuesta tanto reconocer a Mathew Poncelet su participación en los asesinatos? ¿Qué espera conseguir con esa actitud?

Con la colaboración de Elena Mendaza.

baketik

**zeurekin eta besteekin bizitzeko** zinema

# Pena de muerte




baketik

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

943-251005 www.baketik.org

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak… Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

# Pena de muerte

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Dead Man Walking.

URTEA: 1995.

IRAUPENA: 120 min.

HERRIALDEA: AEB.

ZUZENDARIA: Tim Robbins.

AKTORE-ZERRENDA: Susan Sarandon, Sean Penn, Robert Prosky, Margo Martindale, Celia Weston, Raymond J. Barry, R. Lee Ermey, Scott Wilson, Jack Black.

EKOIZPEN-ETXEA: Polygram Filmed Entertainment.

## Sinopsia

Helen Prejean, Orleans Berriko moja errukibera, Mathew Ponceleten, heriotza-korridorean bere heriotz egunaren zain dagoen hiltzaile bortitzaren, aholkulari espirituala da. Helenen helburu nagusia Mathew bezalako lagunek salbazioa aurki dezaten lortzea da. Baina batzuetan ikerketa sakonegiak gizakiaren alderdirik ilunena eta maltzurrena utz dezake agerian. Halere, Helenek pertsona orok baduela alde onik pentsatzen du. Bere egiteko nagusia Mathewren heriotza atzeratzeko denbora nahikoa lortzea izango da, eta, iraganean modu ezin krudelagoan arituagatik ere, ezin dela inor hil guztiei erakustea.

## Gaia

Giza duintasunaren etika, norberak bere buruarekin duen gatazka eta itxaropena

**Giza duintasunaren etika**. Pelikulak giza duintasunaren balio gorena ulertzea ahalbidetzen du indarkeriaren edozein justifikazioaren aurrean. Gertakaria bortitz eta bidegabe baten eta bere egilearen artean nola bereiz dezakegun erakusten digu istorioak. Gertakariaren aurrean kritika eta beharrezkoak diren neurriak martxan jartzea; egilearen aurrean, errespetua.

**Norberak bere buruarekin duen gatazka**. Zuzena dena baina gehiengoaren usteen aurka doana defenditzeak sortarazten dituen dudak deskribatzen ditu istorioak.

**Itxaropena**. Filmeko protagonistek itxaropena modu desberdinetan bideratzen dute: aldaketa gertatzeko itxaropena, arazoak konpontzeko itxaropena, justizia izateko itxaropena, eta abar.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikusi eta entzutea iradokitzen dizugu:

**…barrura begira.** Lehen pertsonan esanguratsu egiten zaigun horri buruz hausnartzea, eta gure bizitzan bertan sortarazten dizkigun galderei buruz. Helburua ez da betirako erantzunak bilatzea, sortarazten dizkigun erresonantziei so egitea baizik.

**…kanpora begira.** Taldean edo eta familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea.

**…ez bakarrik buruarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak edo aurrez ditugun ideiak albo batera uztea, pelikulak kontatzen digun harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**eta denbora baten buruan, berriz pentsatzea…** Egun batzuetara pelikulak uzten digun arrastoari adi egon. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartzen duen protagonismoak bat egitearen ondorioa da.

## Zenbait galdera…

**…pelikula ikusi aurretik**

·Mendekuari buruz: Liberatzen al gaitu mendeku hartzeak? Lasaitzen gaitu? Galera bati aurre egiten laguntzen al dio?

·Bizitzari buruz: Nola bizi gaitezke pertsona maite bat galtzen dugunean? Zerk laguntzen digu galera bati aurre egiten?

·Erruari buruz: Ekintza injustuan parte hartuz gero, nola ematen diogu aurre? Ihes egiten al dugu? Erantzukizuna onartzen al dugu? Aurre egiten al diogu? Damutzen al gara?

**…pelikula ikusi ondoren**

·Nola egiten diete aurre Mathew Ponceletek hildako mutikoen familiek haien galerei? Nolakoa da beren bizitza galeren ondoren?

·Zergatik kostatzen zaio horrenbeste Mathew Ponceleti hilketetan esku hartu zuela onartzea? Zer lortu nahi du jarrera horrekin?

·Istorioan zehar zein jarrera du Helenek Mathewrekiko? Zein ezaugarri ditu jarrera horrek? Zer ahalbidetzen du jarrera horrek?

Elena Mendazaren laguntzarekin.

baketik

Cine para ***vivir y convivir***

# Pena de muerte




baketik

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

943-251005 www.baketik.org